



BBC-ra eta Gara-ra bidali ditu ETAk bere erabaki eta hausnarketaren berri ematen duten adierazpena eta bideoa.

ETAk eraso ekintzen etena iragarri du

«ETAk jakinarazten du hilabete batzuk direla eraso ekintza armaturik ez burutzeko erabakia hartu zuela»

«ETA prest dago prozesu demokratikoa abiarazteko beharrezko diren gutxiengo demokratikoak adosteko»

«ETAren eskutik zehazturiko konpromiso honek fase politiko berri baten abiatzea atzeraz ezin bihurtzen du»

Ezker Abertzalea

«Su-etenaren sasoia igaro da; ETAk ez dio erantzun gizartearen gehiengoak eskatzen dionari»

Eusko Jaurlaritza

«Bake jokalekura iristeko lehen urratsa da eta arduraz aritzeko garaia, alderdikeriak alboratzeko unea»

Eusko Alkartasuna

«Zorionez ez da mehatxu mezua izan, baina hau ez da ETAk gizarteari zor diona eta ezta hark itxaro duena ere»

Eusko Alderdi Jeltzalea

«Euskal Herrian borroka armatua amaitzeko gertaera positiboa da hau, politika eta demokraziaren garaipena da»

Brian Currin

ETAren adierazpena →

ETAk ekintza armaturik ez egitea erabakia duela jakinarazi du

Espainiako Gobernuarekin «prozesu demokratikoa abiarazteko» beharrezko gutxiengoak adosteko prest dagoela dio

Erantzukizunez jokatzeko deia luzatu die euskal eragileei eta nazioarteari

Erredakzioa

Su-eten hitza erabili ez arren, «eraso ekintza armaturik» ez egiteko erabakia hartu duela jakinarazi du ETAk BBC telebista kate britainiarri zein Gara egunkariari helarazitako agirian. Erabakia hartu zuela «hilabete batzuk» badirela dio, gainera.

Bideoz zabaldu du agiria, emakumezko batek euskara hutsez irakurrita. Bozeramaile egiten duenak beste bi kide ditu alboan. Burua zapi zuriz estalia dute hiruak, txapela gainean, eta ETAren ikurra jertse beltzetan zein atzeko paretan. Mahaiaren alde batean ikurriña dutela ageri dira, eta arrano beltza zein Nafarroako ikurra beste aldean dituztela. ETAk ez duela ekintza armaturik egingo adierazi, «gatazkaren konponbide demokratikoarekiko konpromisoan» berresten dela esan, eta negoziatorako gonbitea egin dio Espainiako Gobernuari.

Euskal eragileei zein nazioarteko komunitateari, berriz, erantzukizunez aritzeko deia luzatu die. Eta euskal herritarrei, «une garrantzitsu» honetan borrokan jarraitzeko. Hona hemen, hitzez hitz, adierazpena:

«Euskadi Ta Askatasunak, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, Adierazpen honen bidez bere erabaki eta hausnarketaren berri eman nahi dio Euskal Herriari:

Mende erdi luzea igaro da ETAk, Euskal Herriaren ukazioa eta suntuetze estratategia basatiaren aurrean herritarrak antolatuta eta, armak eskutan harturik, askatasunaren aldeko borrokarri ekin ziola. Ordutik geroztik ehunka dira erakunde honetara bere ilusioa eta grina, bere onena, ekarri duten gizon-emakumeak, belau-naldiz belau-naldi jatorri ezberdinetatik helburu berean bat egin eta egiten duten herritar xumeak: Euskal Herria eta Askatasuna.

Euskal Herriaren askatasunaren aldeko konpromisoak gidatu baitu ETAren jarduna eta, oztopoak oztopo, arduraz eusten diogu konpromiso horri. Apaltasunez

baina determinazioarekin, irabazteko ambizioarekin. Euskal Herriak merezi du.

Euskal Herriaren ukazioa betikotzen zuen frankismoaren erreforma politikoaren aurrean, eta beste zenbaitzuk marko autonomikoan barrena murgiltzea erabaki zuten bitartean, arduraz jokatu zuen ETAk, haustura demokratikoa proposatuz lehenik, eta asimilazio saio eta eraso orori aurre eginez, ondoren.

Borrokari tinko eutsi dio ETAk eta, oro har, ezker abertzaleak. Eta ordainsaria ez da nola nahikoa izaten ari. Larrutik ordaintzen ari gara: tortura, espetxea, erbetea eta bai eta heriotzarekin ere. Baina borroka latzaren lorpena izan da Euskal Herriak bizirik irautea, etorkizun askea eraikitzeko aukera zabalik izatea. Mariko autonomikoa euskal herritarren nahiak asetzeko bide antzua dela erakutsi dugu, Euskal Herriaren zatiketaren eta desegituraketan eragiteko tresna baino ez dela. Eta banan-banan garaitu ditugu askapen borroka neutralizatzerantz bideratutako neurriak.

Euskal Herriaren askapen bo-

«Euskal Herria une garrantzitsu baten aurrean aurkitzen da, bidegurutzean»

«ETA gatazkaren konponbidearekiko konpromisoan berresten da»

«Ezinbestekoa da herri bezala urratsak ematea prozesu demokratikora iritsi ahal izateko»

rrokan eszenatoki berriak irekitez izan da ETAren zereginetako bat. Hortaz, elkarlan ekimen proposamen eta gatazka demokratikoki konpontzeko ekarpen jarria du ETAk. Txibertatik Lizarra-Garazira, Bergararaino igaroz. KAS alternatibatik Alternatiba Demokratikora. Euskal Herria eraiki-



BBC telebista kateari igorritako bideoaren irudi bat. BERRIA

tzea interes partikularren gaine-tik dagoen zeregin kolektiboa dela ulertzen baitugu.

Euskal Herria une garrantzitsu baten aurrean aurkitzen da aspaldin honetan, bidegurutzean. Urte-tako borroka baldintza politiko berriak erein ditu. Mariko autonomikoa agorturik, aldaketa politikoa gauzatzeko unea heldu zaio Euskal Herriari, Euskal Herriarentzat marko demokratikoa eraikitzeko unea, euskal herritarren gehiengoaren nahiari atxiki.

Espainiako estatuak jakin badaki Euskal Herria bidegurutzean dela, oraindik orain Euskal Herriak independentziaren aukera har dezakeela. Horregatik erasoaldi faxistaren tamaina. Aldaketa politikorako baldintzak blokeoaren etsipenean usteldunahi dituzte; konponbide demokratikoa saihesteko eztabaida politikoa desbideratu; herriaren nahia salbuespen egoeran itoarazi.

Euskal eragileok, euskal herritarrok, erantzukizunez eta premiaz erantzun behar diogu egoerari. Hori da ETAk zabaldu nahi duen hausnarketa, luzatu nahi duen deia. Ardurak hartzeko eta urrats sendoak emateko garaia da:

– Independentismoaren proiektu-estrategikoaren artikulazioan; – Prozesu demokratikoa eraikitzeko baldintzak sortzeko bidean;

– Errepresioari erantzuteko eta eskubide zibil eta politikoen defentsa irmoan.

Aldaketa politikoa posiblea da. Baina ibilbide horretan ez dago dezidorrik. Askatasunaren bidea urratsez urratsibili behar da; malgutasunez nahi bada. Baina helburuaren neurriko ahalegina eta borroka egin behar da, halabeharrez. Konfrontaziorik gabe ez dago ukazioa eta itxieria gaundituztik. Ahalegin horretan luzaturik egon da eta dago ETAren eskua, beti.

ETA gatazkaren konponbide demokratikoarekiko konpromisoan berresten da, elkarriketa eta negoziazioaren bidez euskal herritarrok gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeke prozesu demokratikoarekiko konpromisoan.

ETA prest dago, gaur atzo bezala, Espainiako gobernuak borondatea izanez gero, prozesu demokratikoa abiarazteko beharrezkoak diren gutxiengo demokratikoak adosteko.

Horrela jakinarazten diogu nazioarteko komunitateari ere eta dei egiten diogu ETAren borondatea eta konpromisoari ardura historikoaz erantzun diezaion, mendetako gatazka politikoiari konponbide iraunkor, justu eta demokratikoa egituratzen parte har dezan.

ETAk hartutako erabakia: ETAk

jakinarazten du hilabete batzuk dïrela eraso ekintza armaturik ez burutzeko erabakia hartu zuela.

ETAk berriro nabarmendu nahi du euskal eragile politiko, sozial eta sindikalei erantzukizunez jokatzeko deia.

Prozesu demokratiko baten eszenatoki iritsi ahal izateko Herri bezala urrats sendoak ematea ezinbestekoa dela. Herriari Hitz emateko prozedura finkatzea nahitaezkoa dela. Euskal Herriaren eskubideak ezagutuak eta bermatuak izango direnean irekiko baitzaigu gatazkaren benetako konponbidearen ateak.

Amaitzeko, euskal herritarrei oro har, borrokan murgildu eta jarraitzeko deia luzatzen diegu. Nor bere eremuan, bakoitza bere konpromiso maila eskainiz, guztion ur tanteez osatutako uholdearen bidez ukazioaren harresia bota eta askatasunaren aldeko bidean urrats atzerazekinak lortu ditza-gun.

Gora Euskal Herria askatuta! Gora Euskal Herria sozialista!

Jo ta ke independentzia eta sozialismoa lortu arte!

Euskal Herrian, 2010eko irailaren Euskadi Ta Askatasuna

@ Bideo osorik ikusi nahi izanez gero, bisitatu webgune hau:

www.berria.info

ETAren adierazpena →**↓ Konponbideari buruz ETAk aurreko agirietan esandakoak**

2006ko martxoan emandako su-etena 2007ko ekainean eman zuen amaitutzat ETAK. Ordutik, hainbatetan izan ditu hizpide konponbidea eta gatazkari irtenbidea emateari lotutako gaiak bere agirietan. Hona hemen, hitzez hitz, hainbat agiritan ETAK esandakoak:

2007, IRAILAK 9.

■ **Eskubideak:** « (...) Ahalegin horretan porrot egin dute, Euskal Herriaren eskubide demokratikoetan oinarritua egongo ez den edozein irtenbideren saiakerak huts egingo duen bezala ».

2008, URTARRILAK 2.

■ **Herri borondatea:** « Euskal Herriaren ukazioa eta zapalkuntza iraunaraztea bilatzen duten bideak huts egingo dute. Inork ez baitu Euskal Herriko Estatu sortzeko herri honen borondatea garaituko ».

2008, APIRILAK 2.

■ **Autodeterminazio eskubidea:** « Soilik Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen onarpenak ekarri dezake aldaketa politikoa gure herrira, etorkizunerako proiektu politiko guztiak gauzatzeko aukera irekiz ».

■ **Indar metaketa:** « Euskal Herriaren eskubide guztiak ezagutuak izatearen alde borrokatu eta Euskal Herriko Estatu eraikitzeko bidean indarrak biltzeko garaiak dira. Euskal herritarren gehiengo zabal batek Euskal Herriko Estatuaren proiektuarekin bat egiten duenaren ziurtasuna daukagu, proiektu horretan herritar guztiok lekua dugu eta helburu horren alde lan eta borroka egiteko deia luzatzen diegu euskal herritarrei ».

2008, AZAROK 6.

■ **Lizarra Garazi:** « Euskadi Ta Askatasunak hitzarmen horretan Euskal Herriko eragile ezberdinek gatazka politikoa errotaren definizioan eta berak konpontzeko burututako hausnarketaren gaurkotasuna aldarrikatzen du ».

« Etsi ezazue Euskal Herriaren zantpaketa estrategian, etsi inposatutako konstituzioan, heldu Lizarra-Garaziko edukiei, eraiki dezagun autodeterminazioan oinarritutako Marko Demokratiko bat. Eman hitza herriri ».

■ **Proiektu guztiak:** « Euskal Herriko Autodeterminazioa behar du. Euskal herritarrok marko



2006ko martxoaren 22an eman zuten ETAKo hiru kidek bi egun geroago hasiko zen su-etenen berri. LUIS TEJIDO/EFE

demokratiko bat behar dugu, zeinetan posible izango bait den edozein proiektu politiko garatu, independentzia barne ».

■ **Negoziaketak:** « Berriz ere eseraraziko ditugu behingoa Euskal Herriaren eskubideak aitortzeko. Artean, Euskal Herriaren eskubideak ezagutuak eta errespetatuak ez diren bitartean, zantpaketa kontrako erresistentziak iraungo du ».

2009, URTARRILAK 30.

■ **Bide baketsuak:** « Herri honek estatuen inposaketarik gabe bide baketsu eta demokratikoen bidez independentziaren bideari ekingo dio ».

■ **Elkarlana:** « Aitzakiarik gabe herri honen aldeko indarrak bartzeko unea da, abertzaleok independentziaren aroan sartu gaitzen. Euskal Herriak munduan bere hitza eta tokia har dezan bideari ekiteko tenorean gaude ».

2009, OTSAILAK 27.

■ **Bidegurutzea:** « Aukerak, Euskal Herriaren burujabetzaren alde dauden indarren bateratzeak etorriko dira. Herri hau, ziklo autonomikoa gaindituz, beste eskenatoki nazional eta demokratikora eraman nahi dugunon bidea zabalduko da aukera. Arriskuak PNVEk PSOErenkin burutu nahi duen ziklo autonomiko berri baterako saioan lekutzen dira. Euskal Herriaren alde gaudenok, herri burujabetzaren alde gaudenok, aukera berria dugu 30 urte ondoren estatutu autonomiko eta amejoratu berri bati determinazioz ukatu, herri hau bere independentziaren bidean urratsak emateko ».

2009, ABERRI EGUNA.

■ **Eskubideen aitortza:** « Justizia eta bakea ekarriko duen benetako aldaketa politikoa bat izango bada Euskal Herriaren egoeran eta eskubideetan oinarrituko da, edo ez da egongo. Sasi irtenbideak, sasi aldaketek, soilik gerra eta mina luzatuko dute ».

■ **Hausnarketa:** « Herri honek bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duela uste dugun demokratik hausnarketa egiteko tenorean ere bagaude helburu hori lortzera begira. Euskal Herriak jasaten duen erasoerik morderoz aurre egiten zaion bitartean aldaketa politikoa autodeterminazioaren bidean ematen dela bermatzeko urratsak egiteko tenorean baikau ».

■ **Marko demokratikoa:** « Gatazkaren konponbidea politikoa eta negoziatua izango dela inork ukatzen ez duen zerbait izanda, eta konponbidearen korapiloa lurraldetasuna eta autodeterminazioaren zutabeetan oinarritzen bada, gatazkaren konponbidea zutabe horien gaineko marko demokratiko berri baten formulazio politikoa eraikiko da. Eta hori izango da, eta ez beste, benetako aldaketa politikorako giltzarria ».

2009, ABUZTUA.

■ **Konponbide elkarrizketatua:** « Euskal Herriaren zantpaketa gaindituko duen konponbide demokratikoa bideratzea da ETAREN nahia eta borondatea. Espainiaren armen inposizioari egiten diogu, armen bidez, aurre. ETAK ez du, agintari espainiarrek errepikatzen duten eran, inongo proiekturik inposatzeko

nahirik. Proiektu politiko guztiak era demokratikoa egingarri bilakatu dituen konponbide politikoa eta elkarrizketatua da ETAK bilatzen duena hamarkada luzeetan zehar. Autodeterminazioa, herriari hitza eman ».

2009, GUDARI EGUNA.

■ **Prozesu demokratikoa:** « Estatuaren itxikeria eta espainolismoaren ofentsiba politikoa errespetatua izan dadin prozesu demokratikoa garatu behar da Euskal Herrian. Hori da herri honen alternatiba politikoa: Euskal Herria autodeterminazioaren eskenatoki eramango duen prozesu demokratikoa urratzea. Estatuak Euskal Herriaren hitza errespetatzera eramateko, ordea, abertzaleok, independentistok, gure indarrak nazio mailan biltzea ezinbestekoa da, herri hau bere askatasunera iritsiko bada ».

2009, ABENDUAK 31.

■ **Borroka politikoa:** « Egia da errepresioari eustean baino, gure indarrak handiena borroka politikoa dugula. Herri honek bizi nahi du, eta eztabaida politikoa Ezker Abertzalearen aurrean etsaien arrazoiak txiki gelditzen dira. Horregatik urte luzetan zehar adierazpen eta lanabes desberdinak izan dituen borroka politikoa urratsak ematen joan gara. Oraindik ez, baina etorriko da gaurko etsaiekin beste terreno batzuetan elkarri aurre egingo diogun garaia ».

« Iniziatiba gurea da. Ezker Abertzalea da bere proiektu politikoa defendatzeaz gain proiektu politiko guztiak askata-

sunez defendatu eta garatu ahalizateko aukerak barnebiltzen dituen marko politikoa proposatzen duen bakarra. Horri eztabaida politikoa ezin zaio aurre egin. Aurrean kokatzen den proiektu politiko zapaltzaileak porrot egin du, ez du ameskeria mantentzea lortu ».

■ **Prozesu demokratikoa:** « Herriaren Hitza hartzeko prozedurak, autodeterminazio eskubidearen formulazioa adostu eta herritarren borondate politikoa errespetatzea ardatz dituen prozesu politikoa da Prozesu Demokratikoa. Euskal Herriaren nazio eskubideak eta herritarren eskubide politikoa eta zibilak indarrean jartzeko prozesua da. Euskal Herria Autodeterminazioaren eszenatokira eramateko prozesu politiko mailakatu, arautu eta adostua da. Zantpaketa egoeratik ezagutza egoerara pasatzeko gure Herria mekanismo politiko juridikoz hornituko prozesua ».

« Prozesu Demokratikoa ez da soilik Herri honentzako aukerarik onena baizik eta bakarra, eta hori garbi erakutsi behar dugu ».

« Prozesu Demokratikoaren berme nagusia gure Herria dela ulertu behar dugu. Soilik gure Herriko indarrekin askatu eta xedera eraman daitekeelako, soilik gure Herriaren indarren bidez baldintzatu daitekeelako, soilik gure Herriaren bultzadaren ondorioz ireki, eraiki eta burura eraman daitekeelako ».

■ **Herri aktibazioa:** « Berme nagusia dugun herri aktibazioa ematen ez bada, negoziaketa eremu itzalean gelditzen bada, Prozesu horrek ez du aurrera egingo. Era berean Prozesu Demokratikoa ezin daiteke Estatuaren parte hartzerik gabe burura eraman. Bere parte hartzea gutxienean Euskal Herriaren gauzatzeko duen injerentzia bertan behera uztea izan behar du. ETAREN menia edo sueten batek ez du Prozesu Demokratikoa izango dela ondorioz ekartzen ».

■ **Bi mahaia:** « Herri azkartze eta bizkortzean indar berezia jarritz bezaz, Anoetako eskema nagusietan berresten da ETA ».

2010, ABERRI EGUNA.

■ **Bermeak:** « Erantzun armatuaren desaktibazioak ez duela gatazka politikoa konpontzen argitu nahi dugu. Munduko beste gatazken konponketa prozesuetan bezala, gurean ere alde guztietako konpromisoak eta bermeak behar direla, irtenbide sendo eta iraunkorra bermatuko duen agertoki demokratikoa eraikitzea ».

ETAren adierazpena → Erreakzioak



Tasio Erkizia, Agurne Barruso, Txelui Moreno eta Marine Pueyo gaur arratsaldeko lauretan Donostian egin duten urgentziatzko balorazioan. JAVIER ETXEZARRETA/ EFE

Ezker abertzalearen iritziz, «ETAren agiriak fase politiko berri baten abiatzea atzeraezin bihurtzen du»

Mugimendu politikoak «ukaezineko ekarpenetzat» jo du ETAren pausoa, eta «fase berria atzeraezina» dela dio

«Blokeo eta errepresio egoera behin betiko gainditzeko atek irekitzen ari dira»

Ainara Gorostitzu Donostia

ETAk eraso ekintza armaturik ez egiteko hartu duen erabakia «balio ukaezineko ekarpena» da ezker abertzalearen iritziz. Gaur arratsaldean, erakunde armatuak adierazpena publiko egin eta lau orduztara, «urgentziatzko balorazioa» egin du mugimendu politikoak Donostian, eta Agurne Barruso Bergarako alkateak ezker abertzalearen izenean adierazi duenez, «bakea ezartzeko eta gatazkaren behin betiko konponbide ildoan elkarriketa eta negoziazio esparru bat garatzeko ezinbesteko markoa den prozesu demokratiko bat egonkortzeko

ekarpena egin du ETAk». Barrusoren alboan Tasio Erkizia, Txelui Moreno eta Marine Pueyo agertu dira Donostiako hotel batean egin duten agerraldian. Lau ordezkariak aretoan sartu direnerako jakin-mina agerikoa zen Euskal Herriko nahiz nazioarteko komunikabideetako dozenaka kazetarien artean. Haatik, ezker abertzaleko ordezkariak ez dute galderentzako tarterik utzi, bihar hasiko den astean horretarako eta «analisi sakonagoetarako tartea» egongo den prentsaurrekoa egingo dutela jakinaraziz.

ETAk BBC-ren eta Gara-ren bidez zabaldu dituen bideoak eta agiriak «Euskal Herrian fase poli-

tiko berri baten abiatzea atzeraezin» bihurtzen du ezker abertzalearen iritziz. Erakunde armatuak eman duen pausoa ezker abertzalearen oinarriak azken hilabeteetan garatu duten eztabaidaren eta *Zutik Euskal Herria* ebazpenean jasotako ondorioen norabide berean datorrela adierazi du Barrusok, eta era berean, «egungo blokeo, indarkeria, errepresio eta eskubide demokratiko eta nazionalen urraketa masiboko errealitatea behin betirako gainditzeko ahalbidetuko duen agertokiari atek irekitzen dizkiola» deritza. Zentzu honetan, nazioarteko hainbat pertsonaltatek adosturiko Bruselako adierazpena «erreferentzia saihestezina» da ezker abertzalearentzat, bide baketsu eta demokratikoetatik konponbide politiko baterako agertoki baterantzko bidea «modu definitibo eta atzeraezin batean» egonkortzeko.

ETAk eraso ekintza armaturik ez egitea iragarri ostean, ezker abertzalea «bere apustu politiko-

an berresten da eta horrekin koherentziaz, itzaropen eta aukerez beteriko zerumuga indartuko duten ekimenak garatzen eta konpromisoa hartzen» jarraituko duela jakinarazi du.

Deia euskal gizarteari

Agurne Barrusok Espainiako eta Frantziako gobernuei eta nazioarteko eragileei dei eginez amaitu du hiru minutu laburreko agerraldia. «Euskal Herriaren

gehiengoaren nahiari erantzuteko arduraz jokatzeko dei egiten diegu eragile politiko, sindikal eta sozialei, eta baita Madril eta Pariseko gobernuei eta nazioarteko komunitateari ere». Era berean, euskal herritarrak izan ditu ahotan, azken buruko, «alde askotako konpromiso eta ekarpen eskaeren protagonista aktiboa izan dadin deia luzatzen diogu euskal jendarteari, jendartea bera delako prozesu politiko normalizatu baten garapenerako eta guztion artean eraiki beharreko bake eta konponbide demokratiko baten eraikuntzarako berme bakarra».

Barrusok euskaraz irakurrirako agiria Morenok gaztelaniaz irakurri du eta hamar minutu eskasean amaitu da prentsaurrekoa. Kazetari ingeles batek ezker abertzaleak nahi zuen mezua ote den galdetu arren, Txelui Morenok ez du jakingura ase, eta aste honetan izango den prentsaurrekorako gonbitarekin amaitu du agerraldia.



Bakea ezartzeko eta gatazkaren behin betiko konponbidean ekarpena egin du ETAk»

«Ezker abertzaleak bere apustu politikoa berretsi, eta ekimenak garatzeko konpromisoa du»

AGURNE BARRUSO
Ezker abertzaleko ordezkaria

ETAren adierazpena → Erreakzioak

Su-etenen sasoia igaro dela dio Jaurlaritzak, eta poliziak ez direla menian

ETAren agiria «albiste ona» dela adierazi du Rodolfo Ares, baina zehaztu du ez dela «gizartearen gehiengoak» eskatzen duena

ETAk ez dituela armak utzi, «parentesia» egin duela, ohartarazi du Miguel Sanzek

Mikel Peruarena

Eusko Jaurlaritza izan da ETA Euskadi Ta Askatasunaren agiriari erantzun ofiziala eman dion lehen instituzioa. Rodolfo Ares Herrizaingo sailburuak hartu du hitza gaur arratsaldean, eta su-etenen jakinarazpena «albiste ona» dela adierazi du; segidan ohartarazi du, ordea, iragarpena ez dela aski, «ezta gutxiago ere». Su-etena iragartzea gaur eguneari ez dela aski xehatu du: «Su-etenen sasoia igaro da». ETAren adierazpena «anbiguo eta iruzurra» dela iritzi dio, eta abisua eman du: «Ertzaintza eta gainerako poliziak ez daude su-etenenan».

«Atentatu terroristak, behin-behinean bada ere, uzteko albiste ona da, baina segidan esan behar dut komunikatua ez dela nahikoa, gizartearen gehiengo handiak ETARI eskatzen dionari ez diolako erantzun». Hitz horiekin hasi du balorazioa Ares. Gizartearen gehiengoak «jarduera terroristak» amaitzea nahi duela, eta ETAk ez diola horri erantzun uste du Herrizaingo sailburuak.

Urrunago joan da Ares, ezker abertzaleko ordezkariei erreferentzia eginez: «Batzuek sortutako espektatibei ere ez die erantzun, ezta ezker abertzaleko agin-

tariak egin dizkieten espektatibak ere». ETAk zehaztu du jarduera armatua eteteko erabakia duela zenbait hilabete hartu zuela, eta hori ere gogoan izan du Ares. Erabakiak, hartzen diren umeen jakinarazi behar liratekeela adierazi du: «Itxura denez, abertzale erradikalen buruek ere

Espainiako Gobernuak ETAren «pauso bat gehiago» sumatu du, baina ez du askizat joko

Su-etena ikuskatzeari eta epeei buruz ETAk ez duela ezer zehaztu kritikatu du PSE-EEk

ez zekiten ezer, ETARI behin eta berririo aritu zaizkio eta erabakiak hartzeko eskatzen».

Su-etenen jakinarazpenak «ETARI eta bere munduari balio diezaiotke, baina ez zuzenbide estatutari eta gizartearen gehiengoari», ohartarazi du Ares, eta alderdi politikoei, sindikatuak eta instituzioei eskatu die iragarpenarekin ez «katramilatze».

«Tinkotasun demokratikoari» eusteko eskatu du: «ETARI esateko, ez duela bere helburuetako ba-

kar bat ere eskuratuko». ETAren aurka egiteko, «zuzenbide estatutaren tresna guztiekin» lanean jarraituko duela iragarri du.

Bestalde, ETAren iragarpena ez da aski ezker abertzalea «politikara itzultzeko», Aresen hitzetan: «Edo lortzen dute ETAk uztea, edo indarkeriatik aldentzen dira era argi eta zalantzarik gabean». Negoziazioetarako ez dagoela «batere aukerarik» ere zehaztu du: «ETARI exijitzen dioguna jarduera terroristak uztea da, eta hori egiten ez duen artean, borrokatu egingo dugu haren aurka».

Alderdi sozialistako bateko eta besteko eleddunak estu lotu zaizkio Aresen balorazioari. PSNko idazkari nagusiak, Roberto Jimenezek, Aresen hitz berak erabili ditu, su-etena ez dela aski, «ezta gutxiago ere», eta ETAk desagertu egin behar duela nabarmeneko. Ezker abertzaleko ordezkariek «espektatibetatik» behera gelditu da agiria, Jimenezen hitzetan. «Argi dago ez dela aski», zehaztu du PSOEko Antolakuntza idazkari Leire Pajinek ere. «Gizarteak mezu argi gorri die: desagertu eta armak uzteko. Ezin da adarretatik ibili».

Iragarpena ez dela aski, «zehaztugabea eta lausoa» dela baloratu du PSE-EEko exekutibak ere: «Batasunak eta EAK egin dizkieten eskakizunei ere ez die erantzun». ETAren adierazpenarekin dagoela ezer berririk, eperik ez dela zehazten eta su-etenen jarrirak egiteko nazioarteko ikuskaritzarekin ez duela ezer zehaztu nabarmendu du PSE-EEk. Espainiako Konstituzioa eta Gernikako Estatutua sortu zituen prozesu



Rodolfo Ares, gaur arratsean Bilbon egin duen agerraldian. ALFREDO ALDAI / EFE

demokratikoaz soilik hitz egin liteke, PSE-EEren arabera. Hala ere nabardura jarri du alderdiak: «Beti hobe da terroristek ez dutela atentaturik egingo jakitea».

Gobernuarentzat, «pausoa»

Espainiako Gobernuak ez du erantzun ofizialik eman oraingoz, baina *El País* kazetak azaldu du gobernuarentzat ETAren agiria «pauso bat gehiago» dela. Gobernuko iturriak aipatu ditu kazetak, eta xehatu du Moncloan «tentuz» hartu dela albistea; gobernuko iturriek nabartu dute, ordea, ETAk armak utzi behar dituela betirako. Bestalde, Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako

Barne ministroa alderdiekin biltzen hasi da gaur arratsaldean bertan. Eusko Jaurlaritzarekin ere harremanetan da Rubalcaba, eta Espainiako Barne Salla jakinarazpena aztertzen ari dela azaldu dute.

Nafarroako Gobernuak ez du oraindik balorazio ofizialik egin, baina Miguel Sanz presidenteari bere iritzia eman du: «Adierazpena etsigarria da. Ez ditu armak utzi; parentesi bat egin du». Espainiako Gobernuaren negoziatzaerak behartzeko «beste estrategia» bat besterik ez du ikusi Sanzek ETAren adierazpenaren atzean: «Berak nahi duen tokira baino ez du heldu nahi ETAk».

Brian Currin: «Politika eta demokraziaren garaipena da»

Orain, Espainiako Gobernuaren erantzun positibo bat «hil edo bizikoa» dela ohartarazi du Gerry Adamsek

M.P.

«Euskal Herrian borroka armatua eta indarkeria betirako eta modu atzerazinean amaitzeko prozesu bati begira, gertaera posi-

tiboa da» ETAren agiriak, Brian Currin Hegoafrikako abokatu eta bitartekariaren hitzetan. «2010eko irailaren 5eko ETAren adierazpenaren neurria eta garrantzia historikoa ez dago su-etenen bat iragarri izanean», ohartarazi du Currinek. ETAren menia baldintzarik gabea eta aldeba-

karrekoa izatea da nabarmeneko, Currinen esanetan. Adierazpena, gainera, ezker abertzalearen «lidergo politikoari» eta Euskal Herriko gizarteak

adierazitako borondatearen ondorio dela nabarmendu du. «Hori, bere horretan, politika eta demokraziaren garaipena da».

Albistearen berri jakin orduko, balorazioa kaleratu du, gaur iluntzean, Currinek, ingelesez eta gaztelaniaz. *Zutik Euskal Herria* eztabaidan eta dokumentuan «bide soilik baketsuak» erabiltzea eta Mitchell printzipioak onartzea erabaki du ezker abertzaleak; tesuinguru horretan kokatu du Currinek ETAren adierazpena. Bide

soilik «ez bortitzek» eta demokratikoez ezaugarrituko duten aro politiko baten atarian da Euskal Herria, Currinen esanetan; ETAren jakinarazpena norabide horretan egindako «beste urrats bat dela» iritzi dio.

Negoziaketak «bizkor» hasi

Gerry Adams Sinn Feineko buruzagiak harrera beroa egin dio ETAren mezuari. Adierazpena «esanguratsua» dela nabarmendu du; «Euskal Herriko gatazka

luzeari amaiera iraunkor bat emateko aukerak» sor ditzakeela uste du Adamsek. Irlandako RTE telebista publikoari egin dizkio adierazpenok, gaur arratsaldean, Sinn Feineko buruak. Espainiako Gobernuari ere eskakizun zehatza egin du: «Orain hil edo bizikoa da Espainiako Gobernuaren erantzun positiboa ematea, eta alde anitzeko negoziazio politikoak ezartzeko bizkor, gaur aurkeztu den bake prozesuari bultzada emateko».

ETaren adierazpena → Erreakzioak



Eusko Alkartasunaren nazio batzordeak egin du agerraldia Donostiako egoitzan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

«Bake jokalekura iristeko lehen urratsa da», Eusko Alkartasunarentzat

Euskal Herrian abian da prozesu politikoa EAren ustez, eta ekarpen baikorra egin dio ETak «ezbairik gabe».

Nazio Batzordeak egin du agerraldia Donostian, idazkari nagusia buru duela

Gurutze Izagirre Donostia

Euskal Herrian martxan dagoen prozesu politikoa ekarpen baikorra egin dio ETak «ezbairik gabe», Eusko Alkartasunaren iritziz. Behin betiko su-etenaren lehen urratsa da EAKoentzat. «Bake eskenatokira iristeko behin betiko su-etenaren lehen urratsa da», Pello Urizar EAKo idazkari nagusiak adierazi duenez. Nazio Batzordeak egin du agerraldia gaur arratsaldean Donostian. Pello Urizar idazkari nagusiaz gain, Ikerne Badiola komunikazio idazkaria, Juanjo Agirrezabala Eusko Legebiltzarreko

EAREN legebiltzarkidea, Maiorga Ramirez Nafarroako EAKo burua eta Rafa Larreina eta Mariano Alava izan dira agerraldian, besteak beste.

Eusko Alkartasunaren iritziz aspaldi espero zen berria jakinaz du ETak. Herritarren eskaerari erantzun dio.

ETak atentaturik ez egitea erabakitzea prozesu luze baten ondorio da, Urizarrek esan duenez. «Indar independentisten barnean emandako eztabaida sakon eta luze baten ondorioz baldintzak eman dira bakerantz eta normalizazio politikorantz egiteko eragile subiranisten konpromiso

argi batekin: independentzia lortzea bide politikoa eta demokratikoa hutsetatik».

ETaren iragarpenaren ostean, alderdi politikoei eta eragileei arduraz aritzeko eskatu die, «inoiz baino gehiago». Alderdikeriak, protagonismoak eta hauteskunde interesak alboratzeko garaia dela uste du Urizarrek. Horregatik, ETaren adierazpenaren inguruko terminologiaz galdetuta, hori bigarren mailakotzat jo du Urizarrek.

Orain artekoaren emaitza

Garrantzitsuenak «bakerantz eramango gaituen eta eskubide guztiak guztiarentzat lor daitezke lan egitea» dela deritzo Eusko Alkartasuneko buruak. «Lana egin behar da emaitzak lor daitezke. Orain arteko pausoak emaitzak ematen ari dira, norabide berean segi behar dugu lanean bakerantz iristeko Euskal Herrian». Hau guztia prozesu bat dela esan du Urizarrek. Hau urrats bat dela,

eta beste batzuk etorriko direla gaineratu du Urizarrek. Eta EAK pauso horiek eman daitezke lanean segituko duela gehitu du EAKo buruak.

Ardura

Horregatik, alderdi eta eragileei arduraz aritzeko eskatu die, atentaturik ez dagoen aroa «mantentzeko» arduraz eta konpromisoz lana egin dadin eskatu zuten. «Urte luzeko sufrimenduen ostean, hau guztia bake iraunkor batean amai dadin eta euskal herritar guztiek eskubide guztiak airtortuak izan ditzaten arduraz lan egin behar dugu eragile politiko-ko».

ETaren gaurko jakinarazpenak orain arte Eusko Alkartasunak egindako bidean berrestera eraman duela gaineratu du EAKo buruak. Ildo horretan, alderdi subiranista guztiei dei egin die ahalegin horretara batzera eta konpromisoak hartzera.



Orain arteko pausoak emaitzak ematen ari dira, norabide berean segi behar dugu lanean»

«Arduraz aritzeko garaia da, eta alderdikeriak eta hauteskunde interesak alboratzeko unea»

«Alderdi subiranista guztiei dei egiten diegu ahalegin honetara batzera»

PELLO URIZAR
EAKo idazkari nagusia

ETAren adierazpena → Erreakzioak

Gehiago eskatu dute alderdiek, aurrerapausoa antzeman arren

Behin betiko su-etena emateko eskatu diote alderdiek ETARI, baina onartu dute erabakia baikorra dela, mehatxuak desagertu direlako

Aralarrek eta Alternatibak uste dute handia dela urratsa, eta lanerako deia zabaldu dute

Garikoitz Goikoetxea

ETAren adierazpena aurrerapausoa dela onartu dute alderdi politiko gehienek. Nolanahi ere, motz geratu izana leporatu diote talde armatuari: indarkeria behin betiko alboratzeko eskatu diote. Hala ere, adierazi dute erabaki hori ekar dezakeen bidean urratsa izan daitekeela ekintza armaturik ez egiteko iragarpena.

EAJ

«Hau ez da ETAK gizarteari zor diona eta hark itxaro duena»

ETArendantik bestelako urratsa espero zuela adierazi du EAJK: «Hau ez da ETAK gizarteari zor diona, eta hark itxaro duena». Ohar laburra kaleratu dute jeltzaiek, ETAren adierazpenaren harira. Haien arabera, ez du halako presarik berehalako balorazioa egiteak. Bihar egingo du bilera EAJren EBBko zuzendaritzak, eta orduan emango dute hausnarketa sakonagoa. Esperotakoa ez izanagatik ere, ETAren erabakia baikor hartu dute: «Zorionez, ez da mehatxu mezua, edo atentatuen bat beren gain hartzekoa».

ARALAR

«Neurrietako bat betetzen ari da, eta beharrezkoa da urrats guztiak egitea»

«Urrats garrantzitsutzat» hartu du Aralarrek iragarpena, eta itxaropena agertu du, agiri horren ondorioz urrats gehiago izango direla: «Neurrietako bat betetzen ari da, eta beharrezkoa da urrats guztiak egitea bakegintzaren eta normalkuntzaren bidean». Eragileei dei egin die, ahaleginak egin ditzaten. Eta eskari zuzena egin dio ETARI: behin betiko su-etena. «Behin betikoa eta itzulezina den bakea behar du Euskal Herriak, eta hori aldarrikatzen du gizarte

honetako herritar bakoitzak». Etorkizunera begira ere jarri da Aralar: biktimen eta presoan kalteak konpontzea nahitaezko jo du.

MIKEL ARANA

Ezker Batuko koordinatzailea

«Baikorra da, baina ez da gizarteak eskatzen duena»

Aurrerapausoa ikusi du Ezker Batuko koordinatzaile Mikel Aranak adierazpenean, baina ez du aski jo: «Baikorra da, baina ez euskal gizarteak eskatzen duena». Eskas gelditu da ETA, haren arabera: «40 urteko indarkeriaren eta azken aldiaren sortutako itxaropenen ondoren, ez da nahikoa ETAK soilik argitzea hilabeteak daramatzala atentaturik egin gabe». Hala, «anbiguotasuna utzita», desagertzera dei egin dio.

HAMAIKABAT

«Ez dugu onartuko ETA izatea inolako prozesuen bermatzaile»

ETAk indarkeriazko ekintzak alboratu izana pozgarri zaio Hamaikabat alderdiari, mehatxututako pertsonen arriskua gutxitu delakoan. Ordea, ez du zehatz adierazi aurrerapausoa denik: «Jazarpen eta presio ekintza guztiak desagertu direla egiaztatzen dugunean bakarrik esan ahal izango dugu bakearen bidean benetako pausoa eman direla». Baldintzarik gabe armak uzteko eskatu dio ETARI. «Ez dugu onartuko ETA inolako prozesuen bermatzaile izatea. Ez diogu paper hori onartzen, eta ez dugu horrelako prozesuetan sinesten».

ALTERNATIBA

«Aukera historikoa zabaldu da gatazka konpontzeko»

Alternatiba alderdiak pozarren



Iñigo Urkullu, EAJren EBBko presidentea. EBBk bihar aztertuko du ETAren adierazpena. LUIS JAUREGALTZO / ARGAZKI PRESS

hartu du ETAren adierazpena, eta gatazka konpontzeko bidean urratsa dela adierazi du: «Aukera historikoa zabaldu da gatazka konpontzeko». Egoera horretan, lanerako deia egin du Alternatibak: «Lana badago egiteko, baina sinetsita gaude herri mobilizazioaren eta eragileen lanaren bidez lortuko dugula bake eta eskubide eszenatokia». Agiria ezker hartu dutenen jarrera salatu du Alternatibak, eta urrats gehiago egiteko eskatu die ETARI eta Espainiako Gobernuari.

ANTONIO BASAGOITI

EAEko PPren presidentea

«Mugimendu taktikoa izateko itxura guztia dauka»

EAEko PPren presidente Antonio Basagoitik ez du ETAren adierazpenean ikusi bakea lortzeko asmorik. Haren arabera, ezker abertzalea datozen udal eta foru bozetan egoteko trikimailua da talde armatuaren agiria: «Mugimendu taktikoa izateko itxura guztia dauka». Aurreko su-etena gogoan, Basagoitik esan du horrelako egoerak «bere burua legegintzatzeko» baliatzen dituela ETAK. Nolanahi ere, itxaropena izateko eskatu die herritarrei, ETA garaituko dutelakoan.

ROSADIEZ

UPDko presidentea

«Albiste ona da, denbora baterako izanda ere»

ETAren adierazpena baikor hartu Rosa Diezek, UPDko presidentek: «Albiste ona da, denbora baterako izanda ere». Hala ere, tenutzat jotzeko eskatu du, lehenago ere horrelako egoerak izan eta emaitza onik izan ez dutelakoan.

«ETA su-etenean egon arren, demokraziak ezin du hala egon».

CARLOS GARCIA ADANERO

UPNko idazkari nagusia

«Erakundeetan sartzeko estrategian ari da ETA»

Udal eta foru bozetan ezker abertzalea egon ahal izatea, helburu hori du ETAren adierazpenak, UPNren irudiko: «Erakundeetan beste behin ere sartzeko estrategian ari da ETA», adierazi du Carlos Garcia Adanero, alderdiko idazkari nagusiak. Hala, Espainiako Gobernuari eskatu dio ez aldatzeko orain arteko politika: «Terrorismoaren aurka egiten segitu behar du, hiltzaileen atzetik, ETAren porrota lortu arte».

EUROPAKO PARLAMENTUA

«Berri ona da, eta bakea eta egonkortasuna ekar ditzake»

Europako Parlamentuko presidentetzaren ustez, ETAren adierazpena baikor hartu beharrezkoa da: «Albiste ona da, eta bakea eta egonkortasuna ekar ditzake», esan du ganberako presidentearen bozeramaileak. Ordea, ohar-tarazi du ETAren jarrera egiaztatzen egin behar dela, eta egiteko asko dagoela oraindik ere.

ELA

«Espainiako Gobernuak bere politika berrikusi behar luke»

Beharrezko keinutzat hartu du ELA sindikatuen ETAren agiria: «Koherentea da gure gizar-teak egindako eskariekin». Baina pauso gehiago eskatu ditu: ETARI eskatu dio su-etena behin betiko bilakatzeko; Madrilgi gobernuari bere politika berrikustea galdegini

dio. «Bakea eta normalizazio politikoa lortzea ahalbidetzeko erabakia hartu behar ditu».

LOKARRI

«Estrategia berriaren emaitza da ETAren iragarpena»

Garai berrien aldeko apustuaren ondorioa da ETAren agiria, Lokarri sarearen esanetan: «Estrategia berriaren emaitza da ETAren agiria». Taldearen ustez, alde bakarreko erabakia da ETArena, Madrilren erantzuna ez duelako jarri baldintza gisa, eta eperik ere ez duelako eman ekintza armaturik ez egiteko. Agiria zehazgabe jo arren, baikor hartu du: «Lidergoa ezker abertzalearena da, ez ETArena. Lidergoa eta ekimena politikaren esku daude, orain arteko prozesuetan ez bezala». Lokarrik dio indarkeriarik gabeko egoera baliatu beharrezkoa dela elkarbizitza hobetzeko. Horregatik, kontuak eskatu dizkie agiria ezker hartu dutenei: «Arduragabe jokatzea da jarrera ezkorra izatea elementu baikorren aurrean».

BAK

«Urrats zalantzarik gabeak eta nabarmenagoak behar dira»

Bakearen Aldeko Koordinakundeak ez du behar adinako aurrerapena ikusi ETAren adierazpenean: «Lehendik izandako etsipenak tarteko, urrats zalantzarik gabeak eta nabarmenagoak behar dira». Ordea, itxaropena agertu du, adierazpenak izan ditzakeen ondorioez: «Desio dugu erabaki honek ahalbidetzea indarkeria behin betiko uzteari buruzko hausnarketa». Ohartarazi du ETAK ezin dela baldintza politikorik jarri indarkeria uztearen truke.

ETAren adierazpena →

↓ ETAK emandako su-etenak

- **1989. Urtarrilak 8.** Bi asteko su-etena izan zen, alde bakarrekoa. Espainiako Gobernua Aljerren negoziaketek ekin ez gero luzatzeko eskaintzarekin. Bi aste horietan Espainiako Gobernuak ordezkaritza bat ETAKo kideekin batu zen Aljerren.
- **1989. Urtarrilak 23.** Bi aldeek elkarrizketei ekitea eta su-etena mantentzea hitzartu zutela jakinarazi zuen ETAK agirian. Bi hilabetez ETAK ez zuen atentaturik egin, eta Espainiako segurtasun indarrek ez zuten inor atxilotu.
- **1989. Martxoak 27.** Espainiako Gobernuarekin hitzartutako bi hilabetetako su-etena beste hiru hilabetez luzatzea erabaki zutela jakinarazi zuen ETAK. Nolanahi ere, Aljerren hitzartutakoa ez betetzea egotzi zion ETAK Espainiako Gobernuari, eta apirilaren 4an hautsi zuen su-etena.
- **1996. Ekainak 23.** Jose María Aznar Espainiako gobernuburu izendatu zutenean, astebeteko su-etena eman zuen ETAK. Gatazkari irtenbide negoziatu emateko eskatu zion. Hamar hilabete lehenago gizarteratu zuen ETAK Alternatiba Demokratikoa. Garai hartan, Jose Antonio Ortega Lara espesxe funtzionarioa bahituta zekukan.
- **1997. Azaroak 20.** Guardia Zibilak Jose Antonio Ortega Lara funtzionarioa askatu eta lau hilabetera, Espesxe Frontean su-etena aldarrikatu zuen ETAK.
- **1997. Urtarrilak 1.** Ertzaintzaren kontrako ekintzen etena aldarrikatu zuen erakunde armatuak, nahiz eta ez zuten jakinarazi. Ekainaren 23an jakinarazi zuen menia hori amaitutzat eman zuela, Ertzaintzak Ina Zerbaito ETAKo kidea hil zuelako.
- **1997. Irailak 18.** Lizarra-Garaziko prozesua bultzatzeko, mugarik gabeko su-eten orokorra aldarrikatu zuen ETAK. 23 eragilek beste egun lehenago sinatu zuten Lizarra-Garaziko ituna. ETAK agirian ohartarazi zenez, «gertakizun eta urratsak» agindu behar zuten «etenaldi horren behin betikotasuna». Hurrengo urteko abenduaren 3an amaitu zen etena. Azaroaren 23ko agirian jakinarazi zuen EAJK, EAK eta ETAK akordioa sinatu zutela abuztuan, baina akordioa ez betetzea egotzi zion bi alderdiei, eta hori eman zuen hausturaren arrazoi nagusi. Bi alderdiek ukatu egin zuten akordiorik bazenik.
- **2004. Otsailak 18.** Urte horretako urtarilaren lehenetik Katalunian atentaturik ez egitea erabaki zuela jakinarazi zuen ETAK.
- **2005. Ekainak 18.** PP eta PSOEko hautesien kontrako atentatuak etengo zituela jakinarazi zuen ETAK. Espainiako Kongresuak hilabete lehenago onartu zuen ETAKo elkarrizketen aldeko ebazpena.
- **2006. Martxoak 24.** Su-eten iraunkorra aldarrikatu zuen ETAK, «prozesu demokratikoa bultzatzeko». Bi mahaien ereduak jarri zen abian: ETA eta Espainiako Gobernuak batetik, eta alderdien mahaia bestetik. Ordurako, ETAK eta Espainiako Gobernuak akordioa sinatu zuten, Oslon. Loiolan eta Genevan hainbat saio egin ostean, elkarrizketek ez zuten emaitza onik eman, eta ETAK 2007ko ekainaren 6an amaitutzat eman zuen su-etena. Hala ere, amaitutzat eman aurretik atentatua egin zuen, abenduaren 30ean, Madrilgo Barajasko aireportuan. Diego Armando Estacio eta Carlos Alonso Palate hil zituen.



Albisteak oihartzun zabala izan du munduan. BERRIA

↓ Hemeroteka

Espainiaren eszeptizismoa nabarmendu du 'Le Monde'-k

Frantziako Le Monde egunkariak albiste garrantzitsuen artean du su-etenaren albiste. Albiste, ETAKen agiriaren edukiaz gain, erakunde armatuen inguruko hainbat pasarte tartekatzen ditu. Ildo horretan, «Frantzia hegoaldean eta Espainia iparraldean» eremu independente baten alde borrokatzen duen erakunde dela dio, Francoren garaitik. Espainiako Gobernuaren erreakzioak ere jasotzen ditu, bi ideia nabarmenduta: «eszeptizismoa» eta «gutxiegi» delako ustea. Horretan, Eusko Jaurlaritzaren erreakzioaren berri ematen du.

'The Wall Street Journal'-en Europako bigarren albiste

Europari buruzko sailean bigarren albiste nagusia da ETAK eginiko adierazpena *The Wall Street Journal* kazetaren webgunean. «ETA euskal armatu separatistak su-etena» iragarri duela berri ematen du. Irargarpena «hainbat hilabetez bere gertuko alderdiek bere kideei indarkeriari uko egiteko eskatu ostean» iritsi dela nabarmendu du kazetak. 2006an emandako su-etena ez bezala, oraingoan «iraunkorra» izango ote den ez duela zehazten aipatzen du, baita 2006an Madrilgo Barajasko aireportuan ETAK eginiko atentatua ere. Espainiako Gobernuak ordezkaririk iragarpenarekiko «eszeptiko» agertu direla gehitu du.

«Eszeptizismoa», galderak eta ETAKen xedearen berri eman du 'Al Jazeera'-k

Arabieraz hitz egiten duten herrialdeetara ere iritsi da albiste, *Al Jazeera* komunikabidearen bidez. Ingeleseko edizioan, ETAKen adierazpenaren berri jasotzen du, eta zehazten du, 1960ko

hamarkada amaieratik, ETAK 825 pertsona baino gehiago hil dituela: «Europak eta Amerikako Estatu Batuek erakunde terroristatzat jotzen dute». *El País* kazetari erreferentzia egiten dio webgunean, eta alderdi politikoek eta herritarrek ETAKen agiria «eszeptizismoz» hartu dutela dio. ETAKen xedea Euskal Herria independente izatea dela dio *Al Jazeera*-k. Artikuluak dio ez dagoela argi su-etena «iraunkorra» den edo Espainiako Gobernu negoziatziotara eramateko «keinu» bat den.

Bake prozesua sortuko ote den «itxaropena» 'The Guardian'-en

Erresuma Batuko *The Guardian* egunkariaren webgunean puntako albiste da ETAKen adierazpena. «ETA euskal talde separatistak bideo bat erabili du su-etena iragartzeko», dio lekerburuak. Egunkariaren arabera, talde armatuen adierazpenak «itxaropena» zabaldu du, Espainiako Gobernuarekin beste bake prozesu bat izateko. Ordea, ETA zehazgabe azaldu dela dio *The Guardian*-ek: «Hori [bake prozesua] nola gertatuko den, arrasto gutxi eman ditu». Bideoak eta ETAKen historia ere ageri dira informazioarekin batera.

«Errebeldeen» su-etena 'The New York Times'-en

Luze eman zuen albiste *The New York Times* egunkari prestigio duenak, edizio jarraituan. Egunean zehar albiste eguneratuz ere aritu zen, erreakzioak Reuters eta AP agentzietatik bilduta. «ETA euskal talde errebeldeak» eraso armatuak utzi dituela zioen edizio batetan. Adierazpena Batasuna eta Eusko Alkartasuna «independentziaren aldeko alderdiek» zein nazioarteko begiraleek eskatu ondoren egin duela azaldu zuen. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako ordez-

kariak ETAKen iragarpena ez dutela nahikotzat ohartarazi zuen, Rodolfo Arensen hitzak jasota.

Ezker abertzaleari kasu egin diola dio 'Vilaweb'-ek

ETAKen iragarpena eguneko albiste nagusia da *Vilaweb* hedabide katalanaren webgunean. «ETAK su-etenarekin erantzun die ezker abertzalearen eskaerei», dio titular nagusiak. «Euskal mundu independentistak albiste oso positibotzat» jo duela dio, eta EAJK, berriz, ez zela espero zuten albiste, baina ez dela gutxietsi behar. Espazio zabala eskaini dio webguneak albisteari. Halaber, Euskal Herriko hedabide gehienetan interneteko lotura eskura jarri du berria osatzeko, baita Berria.tb-k Rufi Etxeberriari eginiko elkarrizketaren bideoa ere.

Su-eten «ez nahikoari» buruz informazio asko 'El País'-en

Lerboru handian, Su-eten ez nahikoa izeneko artikulu luzea idatzi du Espainiako El País egunkariko webgunean. Informazio horretan, Espainiako Gobernuaren erreakzioak nabarmen ditu egunkari digitalak, besteak beste, Alfredo Perez Rubalcabaren eta Rodolfo Arensen iritziak lerroetara ekarrita. Besteak beste, su-etena ez dela nahikoa adierazi dute biek ala biek. Eta beste ideia bat ere nabarmendu dute: ez dela nahikoa ezker abertzalearentzat ere. Lerboru handiko testua osatuz, kronologiak, ETAKen biktima baten adierazpenak eta Luis Aizpeolearen analisia ere jarri dute irakurlearen esku. Besteak beste, Aizpeoleak dio ETAK «atalka» emango dituela hartutako erabakien inguruko azalpenak. Izan ere, *El País*-eko analista politikoarentzat erantzun gabeko galdera ugari utzi ditu erakunde armatuak.